



## **BERAKATZ ZOPA LEHIAKETA**

Oñatiko Udalak VI. Berakatz zopa lehiaketa antolatu du. Bertan parte hartzeko honako oinarri hauek kontuan izango dira:

- **Eguna:** 2024ko irailak 30, astelehena.
- **Ordua:** 11:30.
- **Lekua:** Foruen enparantza.
  
- **Izen- ematea:** Irailaren 18tik 26ra. Oñatiko kultur etxean bertan eman daiteke izena, baita posta elektronikoko, posta arrunta edo telefono bidez:

Telefonoa: 943 780353

E-posta: [kultura.idazkaritza@onati.eus](mailto:kultura.idazkaritza@onati.eus)

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 10:00 - 13:00 eta 16:30 - 20:30

Helbidea:

OÑATIKO KULTUR ETXEA

Santa Marina plaza, 1

20560 OÑATI (Gipuzkoa)

- **Oinarriak:**

Talde bakoitza bi pertsonaz osatuta egon beharko da. Plaza mugatuak izango dira (lehenetasuna oñatiarrek izango dute); hala, gehienez hamabost bikotek hartu ahal izango dute parte. Kopuru hori gaindituz gero, zozketa egingo da izena eman duten guztien artean.

Parte hartzen duen bikote bakoitzari 20 euroko balioa duten udal bonoak emango zaizkio osagaiak erosteko. Era berean, Udala arduratuko da lan-mahaiak jartzeaz. Parte hartzaileek sua eta ontziteria eraman beharko dute.

Prestaketa lanak plazan egingo dira. Gutxienez 6 pertsonentzako kantitatea egin beharko da. Lehiakideak, beranduenera, 13:00etarako prestatu beharko dute berakatz zopa. Epaimahaia prestaketa-lanak ikustera pasatuko da eta irabazlearen izena emango du, prestatutakoa probatu ondoren.

- **Sariak:**

Lehenengoa: 200€.

Bigarrena: 100€.

Parte hartzen dutenen artean herriko jatetxe batean bi pertsonentzako afaria zozketatuko da.